

Ingurumenaren arloko “Ekoscan” hobekuntza plana: emaitzak

## Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola UPV/EHU

### 2013ko jarduera planean jasotako hobekuntza helburuak

Hauek dira Irakasleen Unibertsitate Eskolak 20012/13 ekitaldirako proposatutako helburuak:

PAPER BIRZIKLATUA EROSTEN JARRAITZEA
PAPER ETA TONER KONTSUMOA ETA HONDAKINAK GUTXITZEN JARRAITZEA
ADMINISTRAZIO ZERBITZUETAN ETA ZUZENDARITZAN
HONDAKINEN BIRZIKLATZE TASA HANDITZEA

### Lortutako emaitzak:

#### 1. helburua: jarraitzea paper zuriaren ordez paper birziklatua erabiltzen

INGURUMENARI LOTUTAKO EMAITZAK			
Zer hobetu da?	% 100 handitu da paper zuriaren erabilera administrazioan eta zuzendaritzan		
			Gaia
	Paper aleak	Paper birziklatua: aleak	Adierazle erlatiboa
Abiapuntuko egoera (2012)	1100000	500000	0,45
Oraingo egoera (2013)	500000	500000	1
Aldea	% 54,54ko jaitsiera	Kopuru berari eutsi zaio	% 100eko igoera

## 1. helburua: paper kontsumoa eta fotokopia kopurua gutxitzea

### Hartutako neurriak

Helburu honi lotuta, honako neurri hauek aplikatu dira:

Ekintza/neurria	Mota
- Inprimagailu terminalaren saioa	
- Pasahitzak administrazioko eta zuzendaritzako fotokopiagailuetan	
- Paperaren tiradera ixtea pasabideko fotokopiagailuan	
- Tonerra erostea premia sortu ahala	
- Banan-banako inprimagailuak erretiratzea	
- Idazkaritzako fotokopiagailua inprimatzeko egokitzea	
- Aktak euskarri digitalean banatzea	

2012/13 ikasturtearen hasieran kanpoko enpresa batek inprimagailu terminal bat jarri zuen pasabidean, ikasleek zein irakasleek erabiltzeko.

Horretarako, txartel bana zeukaten, inprimatzera bidalitakoa jasotzeko.

Bestetik, barne erabilerarako fotokopiagailuetan (idazkaritza eta zuzendaritzakoetan) pasahitza jarri da, bertako AZPko langileek baino ez daukatena.

Itxi egin da pasabideko fotokopiagailuko paperaren tiradera, eta orain AZPkoek baino ez dute erabiltzen.

Idazkaritzako fotokopiagailua egokitu da inprimagailu moduan erabiltzeko, hartara banan-banako inprimagailurik ez erabiltzeko.

Kanpaina bat egin dugu aktak modu digitalean sinatzeko, eta parte bat dagoeneko formatu digitalean artxibatzen dugu.

Inprimaketak idazkaritzan eta zuzendaritzan zentralizatu dira.

2013an premia sortu ahala erosi ditugu tonerrak, ez dago tonerrik gordeta eta erretiratu egin dira banan banako inprimagailuak, toner gehiago kontsumitzen dutenak.

### Lortutako hobekuntzen kuantifikazioa

INGURUMENARI LOTUTAKO EMAITZAK				
Zer hobetu da?	% 64,87 gutxitu da erositako paper kantitatea administrazioan eta zuzendaritzan			Gaia
Abiapuntuko egoera (2012)	Pertsonak	Paper unitateak	Adierazle erlatiboa (unitatea/pertsona)	
	22+148 (AZP+irak.-iker.)	1100000	6470,58	
Oraingo egoera	22 (AZP)	500000	2272,72	
Aldea	% 87,05eko jaitsiera	% 54,54ko jaitsiera	% 64,87ko jaitsiera	

INGURUMENARI LOTUTAKO EMAITZAK				
Zer hobetu da?	Pasabidean egindako fotokopien kopurua % 50,09 jaitsi da			Gaia
Abiapuntuko egoera (2012)	Pertsonak (AZP+irak.-iker.+ikas)	Fotokopiak	Adierazle erlatiboa (aleak/pertsona)	
	1891	76341	40,37	
Oraingo egoera (2013)	2091	42126	20,14	
Aldea	% 10,57ko igoera	% 64,87ko jaitsiera	% 50,09ko jaitsiera	

INGURUMENARI LOTUTAKO EMAITZAK				
Zer hobetu da?	Administrazioan eta zuzendaritzan egindako fotokopien eta inprimaketen kopurua % 43,81 jaitsi da			Gaia
Abiapuntuko egoera (2012)	Pertsonak AZPko + irak.-iker. % 3	Fotokopia kopurua	Adierazle erlatiboa (kopurua/pertsona)	
	22+5	75693	2803,44	
Oraingo egoera (2013)	22	42528	1933,09	
Aldea	% 18,51ko jaitsiera	% 43,81ko jaitsiera	% 31,04ko jaitsiera	

INGURUMENARI LOTUTAKO EMAITZAK				
				Gaia

Zer hobetu da?	Erositako toner kopurua % 39,72 jaitsi da		
	Pertsonak (AZP)	Toner kopurua	Adierazle erlatiboa (kopurua/pertsona)
Abiapuntuko egoera (2012)	22	40	1,81
Oraingo egoera (2013)	22	24	1,09
<b>Aldea</b>	<b>Kopuru eusten zaio</b>	<b>% 40ko jaitsiera</b>	<b>% 39,72ko jaitsiera</b>

### Bilakaera kontrolatzeko sistema

ADIERAZLEA	UNITATEAK	KALKULATZEKO ERA	JARRAIPENA	ARDURADUNA	OHARRAK
Paper kontsumoa pertsonako	Aleak/pertsona	Fakturak	Urtea	Ekoskan kudeatzailea	
Fotokopia kopurua pertsonako	Aleak/pertsona	Erregistroa	Urtea	Ekoskan kudeatzailea	
Toner kontsumoa pertsonako	Aleak/pertsona	Fakturak	Urtea	Ekoskan kudeatzailea	

## 2. HELBURUA: EDUKIONTZIAK JARTZEA HONDAKINAK BEREIZTEKO

Eskolan aurretik egon dira jarrita hondakin mota desberdinetarako edukiontzia.

Ekoskan planaren barruan, plastikorako, organikorako eta gainontzeko hondakinetarako edukiontzia jarri dira ikasleen bi jantokietan.

Orain arte ez dugu neurtu zenbat hondakin bildu diren, edukiontzia urtarrilean jarri zirelako eta ez dugulako astirik izan hobekuntza neurtzeko. 2014an horretan lanean jarraitzeko asmoa dugu.

### **3. HELBURUA: ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA**

Luzaroan, asteburuetan eta jaiegunetan halleko argiak piztuta egon dira eguneko 24 orduetan (ordenagailu batek kontrolatzen ditu).

Horren ardura daukan enpresarekin gestio asko egin eta gero, lortu genuen programazioa aldatzea, eta hiru hilabetez argiak amatatuta egon dira eskolan jardunik ez zegoen orduetan.

Orain, instalazioan egindako aldaketa baten ondorioz, berriz ere desprogramatu da, eta zain gaude enpresako teknikariak berriz ere programatzeko, argiak piztuta egon ez daitezen beharrik ez dagoenean.

Ezin daiteke hobekuntza neurtu, eta 2014rako helburu bezala utziko dugu.

### **INGURUMENAREN ARLOKO BESTE HOBEKUNTZA BATZUK**

#### **SAREKO URAREN KONTSUMOA GUTXITZEA**

Eskolak badauka sistema bat, euri ura biltzeko eta fluxometroen sarean (komun eta pixatokitian) erabiltzeko. Esan bezala, sistemak euri ura jaso eta -2 solairuan dauden bi biltegitan gordetzen du (biltegi bakoitzak 25000 l gordetzen ditu), Iturgintza gelan, Insava enpresak kloroz tratatzen du ur hori.

Gaur egun ezin dugu neurtu erabilitako euri uraren kantitatea, dagoen kontagailuak biltegietatik ateratzen den ura baino ez baitu neurtzen.

Bildutako ur kantitatea maila jakin batetik beherakoa bada, sareko ura sartzen da, eta, orain arte, irteeraren kontagailua baino ez dagoenez, ezin daiteke bereizi kontsumitutako uretik zein den euri ura eta zein den sarekoa.

#### **KOMUNIKAZIOA**

Ekoscanen prozesuaren berri eman zaio Eskolako Batzarrari (2012ko urrian).

Irakasleei gonbitea egin zaie ideia jasan parte hartzeko (2013ko maiatzean).

Ekoskan Hobekuntza Planaren berri eman da Eskolako Batzarrean (2013ko maiatzean).